

70/2020 FORU AGINDUA, abuztuaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez prozedura hasten baita uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzeko. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatu zen.

Uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren bidez berrantolatu zen Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea. Haren 2. artikuluan ezartzen da Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko kontseilariaren foru agindua beharko dela foru dekretu horren eranskinean datorren ikastetxeen sarearen egitura aldatzeko. Aldaketa horren zergatiak, hauexek: ikastetxe berriak sortzea, ikastetxe horien osaera aldatzea, ikastetxeak bateratzea, ikastetxe bat baino gehiago bakar batean bateratzea eta, azkenik, ikastetxeen eta hezkuntza lerro eta unitateen atxikipenean aldaketak egitea.

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko zuzendariak, zenbait estamentuk egindako eskaerak azterturik, uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzeko prozedura hastea erabaki du. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatu zen.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin bat.

AGINTZEN DUT:

1.- Uztailaren 3ko 80/2019 Foru dekretuaren eranskina aldatzeko prozedura hastea. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatu zen.

2.- Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua izendatzea espediente hau prestatu eta tramitatzeko organo arduradun.

3.- Foru agindu hau igortzea Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzura, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 12an.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui

(Sinadura jatorrizkoan dago)